

ESKOLAKO AGENDA 21, 10 URTE

Mertxe Gomez González

ZER DA?

Ikastetxearen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza-programa bat da. Komunitatearen partaide-tzan oinarritzen da eta udalerriko garapen iraunkorrean esku hartu eta laguntzen du.

ZERTARAKO EGITEN DA?

Tokiko zein planetako ingurumenaren egoeraz sentsibilizatzeko eta ezagutza lantzeko, arazoaren aurrean alternatibak proposatzeko era ekimen praktikoetan parte hartzeko.

NORK HARTZE DU PARTE?

Ikastetxeak (ikasleak, irakasleak eta gurasoak) eta Udalak.

LANTZEN DIREN GAIAK:

Klima aldaketa, baliabide naturalak (ura, energia, elikagaiak...), garraioa eta mugikortasuna, kutsadura, kontsumoa, hondakinak, biodibertsitatea, globalizazioa, ekitatea, eskola eta herria...

NOLA LANTZEN DIRA?

Hiru ardatzetan oinarritzen da:

- 1. Curriculum berrikuntza.** Ingurumen arazoez hausnarketarako eta ikerketarako eremua irekitzen du eta horretarako diziplinartekotasuna, bizikidetzeta eta metodo berritzaileak sustatzen ditu.
- 2. Kudeaketa iraunkorra.** Lantzen den gaiaren inguruan ikastetxean zein udalerrian kudeaketa arduratsu eta iraunkorraren esperientzia praktiko era erreala egitea ahalbidetzen du. Komeni da aztertzen diren gaiak udalerriko Ekintza Planarekin bat etortzea, horrela Eskolako eta Tokiko Agenden arteko lotura indartzen da.
- 3. Partaidetza.** Bereziki ikasleena eta hauen inguruak suposatzen duena (irakasle, guraso, ikastetxe, herritar...), besteen egoeraz jabetzeko eta iritzi ezberdinak ezagutzeko. Horretarako alde batetik ikasleen foroa egiten da: herriko ikastetxe ezberdinak elkartu, urtean zehar egindakoa elkarri azaltzeko. Hemendik Udalarizuzendutako proposamen bateratu batzuk ateratzen dira eta Udal entzunaldian proposamen hauek Udal ordezkariari aurkezten zaizkie, egungo errealitatean hobekuntzak egiteko.



HERNANIKO ESKOLAKO AGENDA 21

2004-2005 ikasturtean hasi zen eta aurtengoarekin 10 urte bete ditu.

Gai ugari landu dira: hondakinak, hondakinak kontsumo ikuspuntutik, mugikortasuna, ura, biodibertsitatea, aniztasun kulturala eta elikadura jasangarria.

Ikastetxeak pixkanaka joan dira proiektura gehitzen. 2004-2005 ikasturtean Urumea Ikastola hasi zen parte hartzen, hurrengo ikasturtean Elizatxo eta Langile ikastolak gehitu ziren, hurrengoan Ereñotzuko Txirrita Herri Eskola. 2008-2009 ikasturtean Inmakulada Ikastetxearen parte hartzearekin Hernaniko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiak zeuden proiektuan.

Aurtengo ikasturtean Hernaniko BHI dugu partaide ere, hezkuntza komunitatea handiagotu eta indartu delarik.





GOMENDIOAK

- Erosi beharrezkoa bakarrik, alferrik hondakinak ez sortzeko.
- Erosketak egiterakoan hondakin gutxien sortzen dituzten gaiak aukeratu behar dira.
- Erabili berriro erabil daitekeen materiala.
- Ez onartu gutunontzietan propagandarik.
- Eraman etxetik poltsa erosketak egiterakoan.
- Sartu hondakin bakoitza dagokion edukiontzian.
- Erabili Garbigunea.
- Paper birziklatua erabiltzea gomendatzen da.
- Ez bota lurrera hondakinik.
- Ez erabili komuna zakarrontzi bezala.
- Ez bota oliorik harraskatik behera.
- Eman beste norbaiti gehiegizko jostailuak.
- Ez egin kasurik modari eta propagandari.
- Erabili berriz kargatzeko pilak.
- Egin erosketak azoketan.

	Udalari aurkeztutako proposamenak	Bete da	Ez da bete
1	Eskoletako jolaslekuetan birziklatu ahal izateko edukiontziak jartzea.	✓	
2	Herriko hainbat gune eta parkeetan birziklatzeko edukiontzi txikiak jartzea.	✓	
3	Auzo guztietan bilketa mota guztietako edukiontziak jartzea.		Atez ate
4	Usurbilen bezala, hondakinak atez ate biltzea.	✓	
5	Plastikozko poltsa eta edalontzien erabilera murrizteko ekimenak.	✓	
6	Garbigune baten beharra.	✓	
7	Aldizka informazio eta sentsibilizazio kanpainak burutzea.	✓	
8	Materia organikoa birziklatzeko aukera izatea.	✓	
9	Herriko parkeak maizago garbitu.		
10	Komun publiko gehiago jartzea herrian.		
11	Urumea ibaia eta ibai ertzen aldiroko garbiketa.	✓	
12	Herriko baserriak eta denda txikiak bultzatu.		





GOMENDIOAK

- Errespetatu kaleko arauak: zebra-bideak, trafiko arauak, zakurrak lotuta eraman...
- Ibili oinez edo bizikletaz ahal den guztietan. Ezin de-nean, erabili garraio publikoa eta autoz ibiliz gero eraman beteta.
- Bete arauak eta eraman kaskoa bizikletaz ibiltzerakoan.
- Joan oinez edo bizikletaz eskolara.
- Bultzatu gurasoak zutoz gutxiago erabiltzera.

	Udalari aurkeztutako proposamenak	Bete da	Ez da bete
1	Herrian dauden bidegorriak luzatu, erdigunean eta ikastetxeetarako bidean.	✓	
2	Bizikletak aparkatzeko leku gehiago herrian.	✓	
3	Eskolara oinez ekimena martxan jarri.		X
4	Bidegurutzeak aztertu eta hobetu: semaforo, errotonda...	✓	
5	Udaltzainen presentzia areagotu ikastetxeetako sarrera-irteeretan.	✓	
6	Hobekuntzak espaloietan: zabaldu, zorua berritu...		
7	Eskailera maldatsu ondoan arrapala barandarekin edo eskailera mekanikoak.		X
8	Gaizki aparkatzea zigortu (espalo, bus geltoki...).		
9	Argiztapena hobetu herriko hainbat gunetan.		
10	Zarata gutxitzeko leiho aldaketa ikastetxeetan eta hesiak errepide ertzetan.	✓	
11	Garraio publikoa hobetzeko txartelak (bono-busa).	✓	
12	Urumea - Elkano eraikineko parkina kendu eta jolasgune bihurtu.		X
13	Autoaren erabilera herri barruan murrizteko kanpainak egin.		X





GOMENDIOAK

- Ez jolastu urarekin.
- Itxi txorrota behar ez dugunean eta ez utzi tantaka.
- Ura edaterakoan edalontzia behar duguna bakarrik berteke dugu.
- Dutzatu bainatu beharrean eta itxi txorrota xaboia eman bitartean.
- Itxi txorrota eskuak eta hortzak garbitzerakoan.
- Ez erabili komuna zakarrantzi bezala eta ez bota oliorik arraskatik.
- Edateko ura txorrotakoa izan dadila eta ez botilakoa.
- Ahalegindu ibaiak garbi mantentzen.
- Errespetatu herriko iturriak.
- Faktura begiratzuz, norberak etxeko ur kontsumoa eza gutzea garrantzitsua da.
- Jarri ura aurrezteko sistema (txorrotetan, bi botoidun zisternak, ur botila zisternan).

	Udalari aurkeztutako proposamenak	Bete da	Ez da bete
1	Herriko iturrien behaketa eta mantenua hobetu.	✓	
2	Txakurrentzako iturri egokiak jarri eta besteetatik edatea debekatu.		X
3	Euri ura erabili kaleak garbitu eta herriko lorategien ureztaketarako.		X
4	Informazio eta sentsibilizazio kanpainak ura neurritz erabili dezagun.	✓	
5	Informazio kartelak ibai eta erreka ertzetan hauek txukun mantentzeko.	✓	
6	Eskoletako eta udal eraikinetako iturri eta komunitako ponpetan ur murriztaileak ipini.		
7	Urumea ibaia eta herriko erreken aldiroko garbiketa.	✓	
8	Herriko hoditeriaren mantentze lan egokia egin.		
9	Argiztapena hobetu herriko hainbat gunetan.	✓	
10	Lantegietako isurketen kontrol handiagoa egin.	✓	





GOMENDIOAK

- Errespetatu inguruko landare eta animaliak.
- Utzi bakean berdeguneetako animaliatxoak eta txori ha-
biak.
- Ez izan kanpotik ekarritako landare edota animaliarik,
eta are gutxiago maskotak edozein lekutan askatu.
- Txakur kakak norberak jaso behar ditu.
- Ikasle etorkinei ongi etorria egin.
- Kontuan izan denok desberdinak garena eta denok ditu-
gula sustraiak.
- Kultura eta hizkuntza aniztasuna dibertsitatearen parte
dira.

	Udalari aurkeztutako proposamenak	Bete da	Ez da bete
1	Informazio kanpainak espezie inbaditzaileak sor ditzaketen kalteez.	✓	
2	Hernaniko babestutako guneak zaindu: Santa Barbarako putzua eta Urumea ibaia.	✓	
3	Eta babestutako bizidunen bilduma osatu eta eskoletan jakinarazi.		X
4	Herrian landaketak egiten badira bertako espeziekin egin daitezten.		
5	Herriko eta ikastetxeetako lora-tegietan kabi kaxak jarri.	✓	
6	Parke hauetako bizidunak errespetatzeko kartelak jarri.	✓	
7	Txakur kaken inguruko sentsi-bilizazio kanpainak indartu eta isunak jarri betetzen ez dituztenei.		
8	Nere Borda parke botanikoaren egoera hobetu: zuhaitzen izenak berritu, urmaela garbitu, baratzako landaketak identifikatu.		
9	Informazio eta harrera bulegoak ireki etorkientzat.		
10	Doako euskara ikastaroak guraso eta ikasle etorkinentzat.	✓	
11	Herriko festetako egitarauetan kontuan izan komunean zerbait antolatzearen.		





GOMENDIOAK

- Erosi eta landatu bertako produktuak.
- Fruta eta barazki gehiago jatea gomendatzen da.
- Erosi azoka edo denda txikitetan supermerkatu handietan baino gehiago.
- Ez kontsumitu osagai kimiko asko dituzten produktuak.
- Egokiena tokian tokiko eta garaian garaikoa jatea da.
- Baloratu baserriarren lana.
- Bilduki gutxiagoko produktuen alde egitea.
- Janaria hobeto antolatu gutxiago botatzeko.

Udalari aurkeztutako proposamenak

- 1 Hitzaldiak antolatu familientzako elikadura eta osasunaren inguruan.
- 2 Baita informazio kanpainak bertako produktuen alde.
- 3 Bertako produktuak sustatu publizitatea eginez, zozketak antolatuz...
- 4 Bertako produktuen azokak eta denda ekologikoak bultzatu.
- 5 Ostegunetako azoka edota Behemendikoa Atsegindegira pasa euria egiten duenean.
- 6 Baserriak eta baratzak zuzenean ezagutzeko bisitak antolatu, nahiz heldu nahiz ikasleentzat.
- 7 Udal baratza parkeak auzo gehiagoetara zabaldu.
- 8 Kirolguneak gehitu eta hobetu, kirola osasuna da.
- 9 Indarra egin ikastoletako jangeletan bertako produktuak erabiltzeko.
- 10 Berrantolatu erosketan poltsen banaketa kanpaina eta berrerabilera saritu.

Oharra: aurtengo gaia

